# MERKATU SEGMENTAZIOA

DUMU

Bezeroak dira edozein negozio erduaren bihotza, ez baitago bezerorik gabe bizirauten duen enpresarik.  Bezeroak talde bakar baten edo batean baino gehiagotan banatuta egon litezke, baina ondo berezitu beharko ditugu talde bat bestearengandik.

DUMU-ren kasuak klase partikularrak eskainiko ditugu, orduan gure negozio-proiektua martzan jartzea, berehala identifikatu dugu zein den gure xede-plubiokoa (zerbitzu bat iritsiko duen kontsumitzaileen taldea).

Lehen esan dugun moduan, bezeroak dira edozein negozio-ereduren funtsa, haiek gabe ezun baitu enpresa batek luzaro iraun. Bezeroen beharrizanak hobeto asetzeko, ezinbestekoa da bezeroak ezaugarri komunen arabera sailkatzea: beharrizanen edo ohituren arabera.

Lehenengo zein merkatu-segmenturi zuzendu nahi dugun erabaki behar dugu:

Norentzat sortzen dugu balorea?

Gure enpresak balorea sortzen die lehen hezkuntzako bosgarren mailatik DBHko bigarren mailara arteko ikasleei. Haur hauek etxeko lanetan eta ikaskuntza prozesuan laguntza behar dute, batez ere zailtasunak dituzten irakasgaien inguruan. Gainera, gurasoei ere balioa emango diegu, haien seme-alaben ikaskuntza hobetzen lagunduz.

Zeintzuk dira ukituko ditugun segmentuak negozio-eredu honen bitartez?

**Ikasleak**: Lehen hezkuntzako eta DBHko ikasleak, etxeko lanetan eta irakasgaien ikaskuntzan laguntza behar dutenak.
**Gurasoak**: Haurrek laguntza behar dutenean, gurasoak inplikatuak izango dira, etxeko lanak egiteko laguntza eskatzen baitute.
**Eskoletako irakasleak**: Ikasleen zailtasunak identifikatu eta gure zerbitzua gomendatu dezakete.

Gehienez, zenbat bezero izan ahal ditugu?

Ereduaren araberako ikasle kopurua aldatzen da, baina gutxi gorabehera 50-100 ikasle izan daitezke aldi berean, talde txikietan lan egiteko eta ikaskuntza pertsonalizatu bat eskaintzeko.

Zeintzuk izan ditezke gure bezerorik garrantzitsuenak?
**kasleak**: Etxeko lanak eta irakasgai zailak dituzten ikasleak, laguntza eta orientazioa eskatzen dutenak.
**Gurasoak**: Haien seme-alaben hezkuntzan interesa duten gurasoak, ikaskuntza prozesua hobetzeko laguntza bilatzen dutenak.
**Eskoletako irakasleak**: Ikasleek zailtasunak dituzten irakasgaien irakasleek, euren ikasleak hobetzeko laguntza nahi dutenak.

Gero zehaztasunez diseinatu beharko dugu dugu negozio-eredua